

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Eskaratz handian, zertako bagen haro?
2. Ganix zertako xutitzzen zen ardura?
3. Nola zagon Beñat oseba? Papararen hitzorde bat emaguz.

Sempere Elizako Bestak OIHAN ALDEKO BASKARIA

①

- 3 -

Eta bagen haro eskaratz handian! Ganixek maiz xutitzzen zuen pitxer borobilaren berriz bethetzeko. Oseba Beñat, athorra paparoa idekirik, zikiro hexur bat eskuan, kantuz hasia zen:

*Nik badakit, zaharragoek erranik,  
 Arno onak ez duela parerik!  
 Orat ere balin banu hartarik,  
 Edan niro basoa betherik!*

Eta guziek errepikatzen zioten, hiru, lau bozetan:

*Orat ere balin banu hartarik,  
 Edan niro basoa betherik!...*

Esne-opila gainerateko esneki goxoarekin, pastiza begietarik ta... ahotik ezin utzia mahainean agertu zirelarik, Gantxumeren, Frantxaren, Xanetaren eta bertze haurren loria! Jan ahala jan... ari ziren, zati eder bat esku bakotxean, pozi<sup>22</sup> alimalea<sup>23</sup> ahoan. Mahai inguruan, paper xuri batzu, mokanes garbi xuri batzu ere pulliki pulliki xabaldu ziren. Bazkaltiarak orhoit ziren beren etxeetan utzi haur ttikiez eta... handiez ere orobat; eta Oihanaldeko orhoitzapena bazeramaten pastiz ederretik.

Kafe beltz beroaren eta pattantun garratxaren aintzinean pipa eta pipa ari ziren gizonak.

Berorik, urririk eta jarririk, han zuten edari goxoa. Eta kantuz oro berriz hasiak dira, egundaino bezala:

*Uso xuria, errazu,  
 Nora joaiten zira zu?  
 Espainiako bortuak oro  
 Elhurrez betheak ditutzu...  
 Gaurko zure ostatu  
 Gure etxean baduzu,  
 Gure etxean baduzul!...*

32. EREMAN - EMPORTE, EMMENER, CONDUIRE

Singulier	INDICATIF	Singulier
Présent	Hura = le, la	Imparfait. Hura = le, la
Nik deramat = je l'emmine	N. neraman = je l'emmenais	
Hik deramakizu = tu l'emmines	H. heraman = tu l'emmenais	
Zuk deramazue = vous l'emminez	Z. zineraman = vous l'emmeniez	
Harek derama = il l'emmine	H. zeraman = il l'emmenait	
Guk deramagu = nous l'emmenons	G. gineraman = nous l'emmenions	
Zuek deramazue = vous l'emminez	Z. zineramaten = vous l'emmeniez	
Heiek deramate = ils l'emminent	H. zeramaten = ils l'emmenaient	

② ADITZE IKASKUNTZA

31. Balin banu 32. Bazeramaten

33. Edan niro 34. Ikusten gaituzue

31. UKAN. Suppositif - EVENTUEL 1<sup>ere</sup> Forme

Eventualité prochaine (immédiate)

C.D.S

C.D.P

Nik banu = si je l'avais	N. banitu = si je les avais
Hik banu = si tu l'avais	H. banitu = si tu les avais
Zuk bazinu = si vous l'aviez	Z. bazinu = si vous les aviez
Harek balu = s'il l'avait	H. balitu = s'il les avait
Guk bazinu = si nous l'avions	G. bazinutu = si nous les avions
Zuek bazinute = si vous l'aviez	Z. bazinutuzte = si vous les aviez
Heiek balute = s'ils l'avaient	H. balituzte = s'ils les avaient

Suppositif EVENTUEL

2<sup>eme</sup> Forme Eventualité en général

C.D.S

C.D.P

Nik ukan banera = si je l'avais	N. ukan banitza = si je les avais
Hik - " - ba heraz = si tu l'avais	H. - " - bahitza = si tu les avais
Zuk - " - bazinez = si vous l'aviez	Z. - " - bazinutza = si vous les aviez
Harek - " - balera = s'il l'avait	H. - " - balitza = s'il les avait
Guk - " - bazinez = si nous l'avions	G. - " - bazinutza = si nous les avions
Zuek - " - bazinezate = si vous l'aviez	Z. - " - bazinutuzte = si vous les aviez
Heiek - " - balerazate = s'ils l'avaient	H. - " - balituzte = s'ils les avaient